


Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 11 / 537. zenbakia



**ERRAMU
ZAPATUA**
09:30ETIK AURRERA
FERIA IKUSGARRIA


KIROLA: TXAKUR LERAK, DOMEKAN, GORLAN/11 • BERTSO MUSIKATUAK: GAUR GAUEAN POL-POLEN/12



ANTIA
HARATEGIA
Matxiategi 8
BERGARA



BOLU
FRUTATEGIA
Aranerrika 3
BERGARA



GERMAN LETE
ARRAINDEGIA
Oxirondo azoka
BERGARA



IMAZ
HARATEGIA
Aranerrika 1
BERGARA



LETURIA
JON MIRENA
HARATEGIA
San Pedro 24
BERGARA



MERTXE
OILASKOAK
Oxirondo azoka
BERGARA

OSAGAI **ONENAK** GURE KONTU



MUJIK
HARATEGIA
Kalebarren 1
ANTZUOLA

Prestatu, zuk prestatuko
duzu ondoen,
baina osagai onenak
gurean eskuratu
ahal izango dituzu:
zure herriko dendetan.



PRIMI
ARRAINDEGIA
A. Fleming 5
BERGARA



SAN PEDRO
FRUTATEGIA
San Pedro z/g
BERGARA



URCELAY
HARATEGIA
Ibargarai 16
BERGARA



ZARAITZU
ARTISAIA
Fraiskozuri 3
BERGARA

ATREBENTZIAEZPADA/ Orokorrrian herrixa zaintzen dogula pentsatzen jatzu?



MARIA TERESA SÁNCHEZ
62 urte




ELENA GONZÁLEZ
27 urte



MANUEL GONZÁLEZ
74 urte



BEGOÑA AGIRREBEITIA
60 urte



REGINO VALLE
67 urte



LUISA SÁNCHEZ
60 urte

Uste dot generalian ondo zaintzen ditudugula gauzak, lorategiak ikustia besterik ez dago. Dana dala, gaztiekin ez dauzkate gauzak hain garbi; gure etxe ostia ez dago batere ondo.

Herritarrok ez, eta Udalak ere ez. Zeozer lurrera jausi eta ez dogu jasotzen... Orokorrrian ez ditudugu gauzak errespetatzen. Aparkatzeko be, espaloi gainean lagatzen dogu autoa...

Danerakua dago, batzuk gauzak hobeto zaintzen dittue eta beste batzuk ez. Dana dala, nik uste dot urtiak aurrera eginda poliki-poliki holako gauzak be ikasten goiazela.

Nik uste erdiz purdiz zaintzen dogula. Pentsatzen jat narraz samarrak garela; gauzak oso errez botatzen ditudugu lurrera. Eta horretan gazterixiak kuidaunik ez daukala uste dot.

Danerakua dago, baiña gorokorrrian ez dogu zaintzen gauzak, estetikoki bez. Oso errez botatzen ditudugu gauzak lurrera: zigarruaren mutxikina, pipa azalak, papalak...

Ez dogu asko zaintzen. Nik dakiten auzo batez berba egingo banu... Ondiokan be zaborra edukiontzira bota biharrian kanpuan lagatzen dogu, papalak lurrea botatzen ditudugu...

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK MUSIKA ENTSEGURAKO LOKALAK Gaztetxo koadrila bat erredakziora etorri eta herriko musika taldeek entseatzeko orduan duten lokal gabeziaren ganean kexatu dira. Diotenez, gehiago egon litezke, baina entsegurako lokalik ez dagoenez, hainbat taldek utzi egiten diote jotzeari. Udalarik lokalak uzteko eskatu nahi diote, edo, behintzat, erraztasunak eman ditzala lokalak lortzeko. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /10

KULTURA /12

Erramu-zapatuko feria

Bihar, zapatua, ganadu, artisau eta eusko labeleko produktuen feria egongo da ikusgai 09:30etik aurrera.

Preferentea, igoeraren bila

Preferenteko futbol taldeak partidu erabakigarriak jokatu dituzte zapatuan eta eguaztenean.

Imanol Gordovilla

Hamahiru urteko bergararrak irabazi du Pazkoak iragartzeko Udalak antolatutako kartel lehiaketa.

ASTEKODATUA

100

ERRAMU ZAPATUKO FERIAN EGONGO DIREN ABELBURUAK

Bihar, 100 abelburu inguru egongo dira ikusgai Erramu-zapatuko ferian. Horrez gainera, beste animalia batzuk ere egongo dira, eta baita denetarikoko salmenta postuak ere.

BESTEKEESANA

“Aupa Etxebeste du izenburua idatzi dugun luzemetraiak eta itxurakeriaren kontua jorratzen du.

Euskal Herrian kokatuta dago, eta, gainera, euskaraz nahi dugu grabatu. Hor dago borroka baina hori da gure helburua. Dena dela, geroz eta beldur gutxiago dago zinea euskaraz egiteko. Ekoizpen etxeak dihardu mugitzen eta jendeari eskaintzen. ASIER ALTUNA 'KIXI' / Zinemagilea 'Deia/03-04-04

“Herrikoak garen pertsonendako, gure ilusioa herriarendako ongia da. Politika hortxe dago, eta haren ganean eztabaidatu behar da, testuinguru instituzionalaren barruan dagoelako, baina herriari ere eman behar gara”.

VICTORIANO GALLASTEGI / Alkatea 'Deia/03-04-04

BERAIEKDIÑOÈ/ Lander Juaristi



Txapa irratia, bere txikitasunean handia

Gaur, ideien zapalkuntza inoiz baino gordinago pairatzen ari garen momentu honetan, gure ama hizkuntzari zuzenean erasotzen ari zaien momentuan, euskaraz informatzeko genuen aukera bakarria lehertu nahi izan duten momentu honetan, inoiz baino indartsuagoa da Bergaran irratia libre sendo bat garatzeko daukagun gogoia! Erasoei gure printzipio eta usteak indartzen baitituzte, eta eguneroko lanarekin, poliki-poliki lortu dezakegunean sinesten baititugu!

Komunikabideek lehen mailako papera jokatzen dute gure herriko panoraman, tamalez oso gutxi dira herriarenak eta herriarentzat diren informazio bideak. Euskal Herrian entzuten diren irratiak, ikusten diren telebisten edo irakurtzen diren egunkari gehienek atzean, herriarekin zer ikusirik ez duten interesak daude, helburua ez da informatzeari, manipulatzeari baizik.

Txapa irratia libreak, urteak daramatza Bergarako herritar eta kolektiboei beraien ideiak uhinen bitartez Bergarako belarri ezberdinetara zabaltzeko aukera eskaintzen, eta azken urteetan fin-ko 97.25-ak bere eskaintza areagotu duela esan behar dugu: 22 irratsaiok betetzen dute astea (gehienak iluntzean) eta 24 orduz emititzen dihardugu.

Baina irratia txikia izan arren, gure etorkizunerako asmoak handiak dira; Arrosako proiektuarekin bat egongo dugu”

daukagu, Euskal Herri osoan zabalduko den irratia sare anitz eta euskaldunetan biziko den irratitxo bat izango gara, eta sare horren bitartez Bergarako herritarrei, gaur egun existitzen ez den irratia mota bat eskainiko diegu: tokian tokiko informazio zuzenarekin, beste irratia libre edo euskaldunetan egiten diren irratsaiok sendoenekin, beti ere gure izate eta autonomia mantenduz. Noski!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Inaki Iturbe

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Maitane Arizabaleta
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 11
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

ZAPATUA, 12
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

DOMEKA, 13
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

ASTELEHENA, 14
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

MARTITZENA, 15
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

EGUAZTENA, 16
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

EGUENA, 17
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza 943 76 53 40

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Erretiratuena etxea. Bergara 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuena elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegaraieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta	Zapatuak: 20:00.
lanegunak:	Angiozar
19:00.	Domekak: 11:30.
Sierbak	Moja Zaharrak
Lanegunak: 19:15.	Lanegunak: 09:00.
Zapatuak:	Zapatuak: 11:00.
19:00.	Mizpirualde
Domekak:	Lanegunak: 11:45.
11:30, 13:00.	Zapatuak: 17:30.
Osintxu	Antzuola
Domekak: 12:30.	Domekak:
Zapatuak: 19:00.	09:00, 11:30.
Elosu	Zapatuak eta
Domekak: 10:30.	lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

JOSU CIFUENTESEN ALDEKO ZOZKETA
Josu Cifuentesen gaztetxoak jaso behar duen tratamendua ordaintzen laguntzeko, hiru saski zozketatuko dituzte bihar, zapatua. Txartelak tabernetan daude salgai. Era berean, hiru kontu ireki dituzte, Euskadiko Kutxan, Caja Rural de Navarran eta Banco Guipuzcoanon.

1965EAN JAIOTAKOAK
1965ean jaiotako afaria, apirilaren 26an, Txarran-txan, 22:00etan. Izenematea, Etxagi, Popis eta Pol-Pol tabernetan edo 629 56 29 25 (Karlos Etxaniz) telefono zenbakian. Egunean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 19:00etan.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Eguaztenean, hilaren 16an, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita. Hurrengo odol ateratzea apirilaren 30ean izango da.

IKASTAROAK KZGUNEAN
KZGuneak herritar guztiendako Informatika ikastarok eskaintzen ditu. Besteak beste, Interneten nabigatzeko eta prestakuntzako ikastarok antolatu dituzte. Argibideak, 943 76 73 24 telefono zenbakian.

JARDUNENAGENDA

ASTE BUKAERAKO JARDUERAK
Txapliguko gaztetxoendako Arrizuri zabalik egongo da bihar, zapatua, 16:00etatik 20:00etara. 17:00etan Txapa Irratira joango dira eta irratsaioa egingo dute. Domekan kanpoko jolasak izango dituzte Arrizurin. Bestalde, Txiskrilabi taldekoek apirilaren 22tik 24ra Oriora irteera egingo dute. Izenematea, Jardunen.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietza, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Santa Marina dorreko harria Alemanian aztertu zuten

Santa Marina parrokiako kanpandorreko harriaren egoera kas-karra zela eta, tekniko aleman batzuek harriaren lagin bat aztertu zuten, Gipuzkoako Diputazioak eskatuta. Harriaren babeserako komeni zen tratamendua eta egin beharreko berritze lanak zehaztea zen helburua.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kirrimarria"

Istilua, eztabaida, zaratatsua batik bat.
—Gaur gabian andra gizonok kirrimarran bat ibillirik izan bia dabe.



ASTEKO FILMAK

'EL AMERICANO IMPASIBLE'

ZUZENDARIA: PHILIP NOYCE. AKTOREAK: MICHAEL CAINE, BRENDAN FRASER.

HARIA. Amerikar bat Saigonera iritsi da 1952an, vietnamdarrek frantziarrak bota nahi dituztenean. Amerikarra Phuong gaztearekin maiteminduko da...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenean, 19:30ean (ikuslearen eguna).

PUNTAUZIOA: ●●●●●



'STAR TREK: NEMESIS'

ZUZENDARIA: STUART BAIRD. AKTOREAK: PATRICK STEWART, JONATHAN FRANKS.

HARIA. Jean-Luc Picard kapitainak eta Enterprise espaziumutiko tripulazioak Rumulanoekin bakea sinatzeko bidaiari ekingo diote. Baina Romulanoen planetara iristean Lurraren suntsidura ekar dezakeen mehatxu bat egin beharko diote aurre.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

BERGARA Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ERRAMU-ZAPATUA/ Ehun animalia baino gehiago eta 140 salmenta postu inguru egongo dira erdigunean, zortzi gunetan banatuta

Ganadua, eusko labela eta artisauak, bihar, zapatua, Erramu-zapatuko ferian

MONIKA BELASTEGI

Erramu-zapatuko feria izango dugu bihar, zapatua, protagonista nagusi. 09:30ean hasita, abelburuak, eusko labeleko produktuak eta makineria ugari ikusteko aukera izango dugu. Horrekin batera, gauean bertsolari puntakoenen saioa egongo da ikusgai.

Feria 09:30ean irekiko dute eta eguerdira arte iraungo du. Osagarri nagusiak abelburuak, eusko labeleko produktuak eta makineria izango dira. Baina, horrez gainera, hainbat artisau eta denetarik postuak ere egongo dira ikusgai.

Abelburuei dagokienez, hamar bat buru egongo dira: oke-latarako ganadua eta ardiak, hain justu ere. Ganaduaren kasuan, hiru arraza egongo dira, Gipuzkoa osotik ekarritako hiru arraza: limosina, blonda eta pirenaika, 80 buru inguru. Ardiak, berriz, latxa arrazakoak, eta 20 buru inguru egongo dira. Horiek guztiak Ibargarai kalean egongo dira ikusgai. Bestalde, pirenaika arrazako bigantxen enkantea egongo dute Ibargarai kalean, 13:00etan.

Abelburu horiez gainera, animalia gehiago ere egongo da ferian: hainbat hegazti mota, oreinak, basurdeak eta zaldiak, besteak beste. Horiek guztiak Seminarioko jolaslekuan egongo dira ikusgai. Eta leku berean makineria eta txakur leren gaineko erakusketa ikusteko aukera egongo da.

Eusko labeleko produktuei dagokienez, 70 postu inguru jarriko dituzte Seminarioko jolaslekuan. Denetarik dastatu, ikusi eta erosteko aukera egongo da: marmelada, gazta, ezti, ogia eta gozoak, besteak beste. Gainera, giroa alaitze aldera trikitilariak jardungo dute goiz osoan. Eta eusko labelik ez duten arren, janari postu gehiago ere egongo da, Seminarioko gunetik kanpora, Simon Arrieta plazan eta Ibargarai, Irala eta Herri Lagunak kaleetan, hain justu ere. Tarteetan, taloak, pintxoak, sagardoa eta antzerakoak saltzeko postu eta txosnak egongo dira. Bestalde, Fraiskozuri plazan Errioxako ardo berria dastatzeko aukera egongo da; Errioxako zortzi bat upelategitako ardoak, hain justu ere.

HIRUROGEI ARTISAU INGURU SEMINARIOAN ETA MUNIBEN

Artisauak ere ugari izango dira bihar, bi gunetan banatuta. Batek, 30 artisau inguru San Martin plazan egongo dira. Honako hauek, besteak beste: zeramika, damaskinatua, saskigintza, taila, frontoi pilota, kandelak, abarrikak, kaikuak eta larrua lantzen duten artisauak. Eta, bestetik,



ARTXIBOA

Ibargarai kalean ganadua ikusgai egotez gainera, 13:00etan pirenaika arrazako bigantxen enkantea egongo dute.

Ehun abelburu inguru egongo dira ikusgai, baita beste animalia mota batzuk ere

beste 30 artisau postu inguru Xabier Maria Munibe plazan egongo dira.

TXORIMALO LEHIAKETA

Txorimalo Lehiaketa ohikoa egin zaigu Erramu-zapatuko ferian.

Artisau eta salmenta postuei dagokienez, 140 inguru egongo dira ikusgai

Jardun Euskara Elkartek antolatzen du eta aurten ere talde ugari hartu dute parte: 32k, hain justu ere. Guztira, 205 lagunek. Hala, 32 txorimalo ikusteko aukera izango dugu. Horien artean, 26 txorimalo 12 urtetik beherako nes-

Lehiaketan 32 txorimalok hartuko dute parte, eta Ibargarain egongo dira ikusgai

ka-mutikoez egin dituzte; bost, 12 eta 65 urte bitartekoak; eta bat, 65 urtetik gorakoak. Txorimaloak Ibargarai kalean egongo dira ikusgai 11:00etatik aurrera, eta sari banaketa, berriz, 12:30ean izango da. Saria talde bakoitzeko

txorimalo politenak eta txorimaloari erantsitako euskarazko esaldi orijinalenak eramango du.

Horrekin batera, bertsolariek jardungo dute, 13:30ean, Seminarioko jolaslekuan: Azpillaga eta Agirre bertsolariak, hain zuzen ere. Eta 17:30ean umeendako jokoak egongo dira San Martin plazan.

'EGUNKARIA'-REN ALDEKO MAHAIA

Euskaldunon Egunkaria ere presente egongo da Erramu-zapatuan. Izan ere, *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak laguntza bonoak eta harpide txartelak saltzeko mahaia jarriko du, 10:00etatik 14:00etara Fraiskozurin eta 16:00etatik 18:00etara Bideberrin.

PUNTAKO BERTSOLARIAK

Erramu-zapatuko ferian egitarauak emango duen azkeneko ekitaldia gauean izango da. 22:15ean bertso jaialdia egongo da Udal Pilotalekuan. Puntako bertsolariek hartuko dute parte: Anjel Mari Peñagarikanok, Aitor Mendiluzek, Iñaki Muruak, Jon Maiak, Mikel Mendizabalek eta Jose Luis Gorrotxategik, hain justu ere. Gai jartzaile lanetan Lazaro Azkunek jardungo du. Saioari hasier bertso eskolako kideek emango diote.

Feriagatik gidariak kontuan hartzekoak

Zapatuan feria izango dela eta, gidariak kontuan hartu beharreko oharra kaleratu du Udaltzaingoak; izan ere, hainbat aldaketa eragingo ditu feriak zirkulazioari eta aparkalekuari dagokienez.

Postuak Ibargarai, Herri Lagunak eta Irala kalean jarriko dituzte, eta, horren ondorioz, kale horietan aparkatuta egoten diren autoak 06:00etarako kendu beharko dituzte zapatuan. Horrez gainera, Ibargarai kalea zirkulazioari moztuta egongo da eta normalean handik pasatzen den

zirkulazioa Zurradero eta Matxiategi kaleetatik desbideratuko dute.

Horrek guztiak trabak eragingo ditu erdialdeko zirkulazioan, batez ere. Hori dela eta, Udaltzaingoak gomendatzen du ahal den neurrian autorik ez erabiltzea bihar erdialdeko kaleetan.

Era berean, gogorarazi nahi dute horrelako egunetan diru-zorro lapurrak ibili ohi direla, eta horregatik eskatzen dute jendea pilotzen den gunetan arreta handiz ibiltzea, poltsekin, batez ere.

Basalgoko hamabi baserri ere hormigoi-lantegiaren aurka daude

MONIKA BELASTEGI

Basalgoko auzotarrek bat egin dute San Juangoekin hormigoi-lantegiaren aurka. Alegazioak aurkeztu dituzte Udalean, batik bat, auzoko errepidean lantegiak eragingo lukeen kalteen gainean.

San Juanen hormigoi-lantegi bat eraikitzeak direla-eta kezkatuta daude San Juango eta Basalgoko auzotarrak. Baitor lantegia eta Agirrezabal ehungintzaren artean jartzeak dira Zeleta hormigoi-lantegia. Orubea prestatzeko lanak ere hasi zituzten, baina duela hilabete batzuetatik hona gelditu daude Eusko Jaurlaritzaren erabakiaren zain. Izan ere, San Juango bizilagunek eta hainbat enpresek eta Basalgoko dozena bat baserriak alegazioak aurkeztu dizkiote hormigoi-lantegia han kokatzeko proiektuari: lehenengo, San Juangoekin egin zituzten alegazioak, eta orain, Basalgokoak ere lotu zaizkie, horiek ere alegazioak aurkeztuz.

BASALGOKO AUZOTARREK BI KEZKA NAGUSI DITUZTE

Basalgoko bizilagun horiek bi kezka nagusi dituzte: lehenengo



MONIKA BELASTEGI

Irudian ikus daitekeen orubean egin nahi dute hormigoi-lantegia

alegazioan jasotzen dutenez, auzorako bidean sortuko diren arazoak kezkatzen ditu. Izan ere, hormigoi-lantegiko kamioiek bide hori erabiliko lukete sarturik ibiltzeko eta baita kamioiak aparkatuta izateko ere. Horri guztiari, kamioien joan-etorriak sortuko duen hautsa, lokatza, eta errepidearen narriadura gehitu diote. Auzotarren

esanetan, eguneko 80 kamioi inguru ibiliko dira joan-etorrian hormigoi-lantegian.

Bigarren alegazioan eraikinarren altuerak paisajearen izango lukeen eragina eta atmosferaren kutsadura jaso dute.

Horren aurrean, Zeleta hormigoi-lantegiari jarduera baimenik ez emateko eskatu dute Basalgoko hamabi baserriek.

Zabalik dago GKEendako diru laguntzak eskatzeko epea

MONIKA BELASTEGI

Udalak zabaldu berri ditu gobernuz kanpoko erakundeendako diru laguntzak eskatzeko epea. 58.473 euro izendatu ditu aurten Udalak horretarako eta eskaerak egiteko epea maiatzaren 9an bukatuko da.

Martxoaren 17an onartu zuen Gobernu batzordeak gobernuz kanpoko erakundeei diru laguntzak emateko baldintza, eta aste honetan zabaldu dute eskaerak egiteko epea. Deialdiaren oinarria da gobernuz kanpoko erakundeekin lan egiteko programak antolatzeko eta garatzeko eta herrialde pobretako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoa hobetzeko asmoz jarduerak burutzeko diru laguntzak ematea. Horrez gain, herritarren artean herrialde horietako errealitatearekiko interesa pizteko ekintzak egitea da diru laguntza horien bigarren oinarria.

Horretarako 58.473 euro izendatu ditu Udalak eta kopuru hori hala banatuko dute: %10, herrian bertan egingo diren sentsibilizazio arloko ekintzetara bideratuko da, eta gainerako %90, garapen bidean diren herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-eko-

nomikoak garatu eta hobetzera zuzendutako ekintzetara bideratuko da.


LAGUNTZA JASOTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Diru laguntzak eska ditzakete legez eratu dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren GKEek. Horrez gain, baina, euren ekintzek aurrez aipatutako bi oinarriekin bat egin behar dute, eta, gainera, ezinbestekoa da Gipuzkoan egoitza izatea.

Era berean, deialditik kanpo geratuko dira Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezpen Erakunderen baten menpeko erakundeak. Horrez gain, onuradun izateko garapenerako kooperazio ekintzak antolatzen esperientzia izan beharko dute eta diruz lagundutako ekintzak aurrera eramateko gaitasuna ere izan beharko dute.

ESKAERA EPEA MAIATZAREN 9RA ARTE ZABALIK

Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara. Aurkezteko epea zabalik dago eta azken eguna maiatzaren 9a izango da.



Aralarreko kideek ere sinatu dute

Aralarreko hiru kide -Juan Martin Elexpuru, Mikel Etxaniz eta Rafa Sanchez- Udalera hurbildu ziren zapatuan *Baietz 501* sinadura kanpainarekin bat egiteko. Hauteskunde zerrenda eta elkargo guztiek, edozein izaera eta ezaugarrikoak izanda ere, mehatxurik jaso gabe aurkezteko duten eskubide demokratikoa aldarrikatzen dute. Ezker abertzalearen kasuan, sinadura bilketan laguntzeko eskatu dute. Irudian sinatzen joandako beste herritar batzuk ere ikus daitezke.

LABUR

Botoa korreo bidez emateko aukera Batzokian

Datorren maiatzaren 25eko Udal hauteskundeetan korreoz bozkatu nahi dutenendako oharra kaleratu du EAJ alderdiak.

Bideratzeak egiteko epea zabalik dagoela adierazi dute eta interesatuak Batzokitik (San Pedro kalea, 4) pasatuz gero gehitu dute honako ordutegian: 11:30etik 12:30etara eta 19:30etik 21:00etara, hain justu ere.

Informazio gehiagorako 943 76 47 00 telefono zenbakira dei daitezke.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel. 943 76 39 53



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tf. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

HAUTESKUNDEAK/ Baietz 501 sinadura kanpainan parte hartzeko eskatu diete herritarrei

Ezker abertzaleko zinegotziek Bergara Aurrera-ren aldeko apustua egin dute

MONIKA BELASTEGI

Ezker abertzaleko zinegotziek aurreko legegintzaldietan jardun dutenek eta gaur egun dihardutenek egin dute adierazpen hori. Era berean, herritarrei eskatu diete Bergara Aurrera kanpainaren aurkezten ahal izateko sinadura kanpainan parte hartzeko.

Ezker abertzaleko zinegotziek astelehenean egin zuten prentsaurrekoa, San Martin plazan. Bergara Aurrera taldearen sorrera "ilusioz" hartu dutela azaldu zuten han batutakoek, eta maiatzeko udal hauteskundeetan talde horren aldeko "apustu garbia" egiten dutela.

Bergara Aurrera taldearen alde egiteko funtsezko bost arrazoi eman zituzten: batetik, Bergarak bizi dituen arazoei "ezkerreko ikuspuntu batetik jardunda aurre egin nahi dugulako"; bestetik, Udalaren funtzionamendu benetan demokratikoa eta herritarren partehartzea "ezinbestekoak ikusten ditugulako"; horrez gain, Euskal Herriak jasa-



Aurreko legegintzaldietako eta gaur egungo legegintzaldiko hainbat zinegotzi batu ziren San Martin plazan, astelehenean.

ten dituen erasoei aurre egin behar zaielako"; bestetik, "autodeterminazioaren aldeko apustu garbia egiten dugulako gure herria eraikitzearen aldeko kon-

promisioa azalduz", eta, azkenik, "gure instituzio nazional bakarra den Udalbiltzaren garrantziak jabetuta haren aldeko lana ezinbestekoa ikusten dugulako".

Era berean, *Baietz 501* kanpainarekin bat egin zuten zinegotziek eta sinadura emateko dei egin zieten herritarrei "denon eskubideak bermatu ahal izateko".



Algodonerako zubia egokitzen hasi dira

Aurreko astean ekin zioten Algodonerako zubitik saihesbideko zubipera arteko zatia egokitzeari. Lanen ardura-dunak esan duenez, egin beharreko lanak ez dira oso sakonak eta makinaria gutxi erabiliko dutenez, ez dute oinezkoendako zubia itxiko, kontuan izanda, gainera, Oza eta Labegaraia taldeko jende ugari erabiltzen duen bidea dela. Hilabete inguru iraungo dute lanak eta zorua egokitzeaz gain orain dagoen hesia altuago jarriko dute seguruagoa izateko.

Irak-eko gerraren kontrako mozioa onartu du Udalak

MONIKA BELASTEGI

Aurreko asteleheneko osoko bilkuran Irak-en aurkako interbentzio militarren kontra dagoela adierazi zuten Udal agintariek, eta horrekin batera, gerraren kontrako ekimenekin bat egiten dutela.

Sozialista Abertzaleek Iraki egindako erasoaren aurkako mozioa aurkeztu zuen aurreko asteleheneko osoko bilkuran. Horren aurrean, EAJ-EAK mozio alternatiboa aurkeztu zuen eta horixe da, hain justu onartu zutena. Izan ere, horrelakoetan egin ohi denez, mozio alternatiboa boz-

katu zuten lehenik: EAJ-EAK eta PSE-EEK mozio horren alde bozkatu zuten eta Sozialista Abertzaleak abstenitu egin ziren.

HAINBAT ADIERAZPEN

Besteak beste, honako adierazpenak jasotzen ditu mozioak: Udalak bakearekiko, demokraziarekiko, giza eskubideekiko eta zuzenbide internazionalarekiko konpromisoa berretsi egiten du; Iraken aurkako interbentzioaren aurka dago eta irtenbidea aurkitzeko asmoz bide politiko eta diplomatiko guztiak azter daitezela eskatzen du, eta Saddam Hussein-en erregimenaren amaiera exijitzen du.

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Ibargarai 44-46
BERGARA BERGARA
943 76 20 49 943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

FUTBOLA

Preferente taldeak igoera fasea izango du jokoan bihar eta eguaztenean Agorrosinen

Mahoneroek Zarautz hartuko dute bihar, 16:30ean, eta eguaztenean Trintxerperen aurkako atzeratutako partidua jokatu dute Agorrosinen

EDU MENDIBIL

Preferente mailako futbol taldeak igoera fasea jokatzeko urrats garrantzitsua eman dezake, baldin eta bihar eta eguaztenean Zarautz eta Trintxerperen aurka Agorrosinen jokatu beharreko partidua irabazten baditu. Bergara sailkapeneko 5. postuan dago.

Bergarrek garaipen garrantzitsua erdietsi zuten zapatuan Txerloian, Anaitasunaren aurka. Anaitasuna Bergararen aurretik zegoen sailkapenean, eta 0-1eko emaitzaren ostean, bergarrek aurrea hartu diete azkoitiarrei. Bergarak partidu ona egin zuen Azkoitian eta lehen zatia bukatu Gorka San Vicentek lortutako golari esker hiru puntuak eskuratu zituen.

Sailkapenean Pasajesek lider jarraitzen du, 66 punturekin; ondoren Tolosa (57 puntu), Elgoibar (56), Berio (55), Bergara (54), Anaitasuna (51) eta Trintxerpe (49 puntu) daude. Bergarak eta Trintxerpek partidu bat gutxiago daukate eta bi taldeek elkarren aurka jokatu dute atzeratutako partidua eguaztenean, hilaren 16an, Agorrosinen, 17:30ean. Aurretik, bihar, zapatua, Bergarak Zarautz hartuko du etxean, 16:30ean.

Gauzak horrela, aipatutako bi partidua irabaztekoan, Ber-



Bergarak Zarautz eta Trintxerpe hartuko ditu zapatuan eta eguaztenean Agorrosinen.

ARTXIBOA

Euskal Ligako taldea mailaz jaitsiko da

Zapatuan Antiguoko taldearen aurka 5-0 galduta gero, Bergarako gazte taldeak agur esan dio Euskal Ligari. Liga amaitzeko hiru jardunaldi falta dira oraindik baina Bergarak ezinezkoa izango du mailari eustea. Javi eta Fernando Oregi anaiek zuzentzen duten taldea sailkapeneko azken aurreko tokian dago, 24 punture-

kin eta datorren denboraldian Ohorezko Ligara itzuliko da. Domekan Erreterriako Union Txiki taldea hartuko du Agorrosinen, 12:00etan. Bergarak 27 jokatu ditu orain arte, 6 partidu irabaziz, 6 berdinduz eta gainerako 15ak galduz. Bergarak 24 gol sartu ditu (gol gutxien egin duen taldea da) eta 51 egin dizkiote.

garak urrats sendoa eman dezake igoera fasea jokatzeko. Zaila izango da Pasajes lidertza galtzea. Hala ere, bigarren postuan sailkatzen den taldeak igoera fasea jokatu du. Juanina Garai entrenatzailearen arabera, "zaila izango da bigarren postua lortzea. Domekero gure onena ematea da gure asmoa eta gero ikusiko da sari hori eskuratzen dugun. Ea geratzen zaizkigun zortzi partiduetan azkenaldian erakutsitako joko onari eusten diogun".

Biharko partidurako Xabi Arregi golegilea baja izango da, Azkoitian bi txartel hori jaso eta gero. Josu Zubikarai, Oskar Maiztegi eta Jokin Mendiartz, berriz, taldera itzuli ahal izango dira.

BESTE LAU PARTIDU ASTEBURUAN

Zapatuan beste bi partidu izango dira: Bergara-San Ignacio (infantilak, 10:00etan) eta Bergara-Vasconia (2. mailako kadeteak, 11:30ean). Domekan, Bergara-Urola (lehen mailako kadeteak, 10:30ean) eta Bergara-Union Txiki (gazteak, 12:00etan).

Bestalde, epaileak bertan behera laga zuen zapatuan 2. erregional mailako Bergara-Aretxabaleta partidua, Ipintzan. Markagailuan 2-1ekoa zegoela, epaileak 35. minutuan suspentitu zuen partidua aretxabaletarren protestengatik.

Gipuzkoako Eskola Arteko piraguismo proba bihar, Bideberrin

E.M.

Bihar, zapatua, infantil mailako Gipuzkoako Eskola Arteko Piraguismo Txapelketa jokatu da Bideberrin, 16:00etan. Beti-Bustiren partetik Leire Fernándezek, Iraitz Arizabaletak, Ekaitz Aranberrik eta Mikel Alustizak hartuko dute parte. Beraiekin batera, Atlético San Sebastian, Santiagotarrak eta Koxtape taldeetako piraguistak lehiatuko dira, 40 bat guztira. Leire Fernándezek Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen iaz eta aurten ere urrezko domina eskuratzeko aukerak ditu. Iraitz, Ekaitz eta Mikel, berriz, lehen urteko infantilak ditugu. Eneko Iturrospe da beraien entrenatzailea.

Biharko txapelketa Karmelo Iturrospe zenaren omenez jokatu da. Beti-Busti taldeak haren izena jarri dio txapelketari, taldearen alde egin zuen lan bikaina eskertzeko.



Beti-Bustin hamar lagun dabilta aurten slalomeko lehiaketatan.

BETI-BUSTI

Amateur mailako pilotari onenak Bergara Hirian

EDU MENDIBIL

Martitzenean abian jarri zen Bergara Hiria pilota txapelketaren VIII. ekitaldia. Maiatzaren 27a bitartean 22 urtetik azpiko eta amateur mailako pilotari onenak ikusteko aukera izango dugu.

Aurten ere Bergara KEko pilota sailak partaidetza bikaina lortu du eta zaleek etorkizun handiko pilotariak gertutik ikusteko aukera izango dute. Ohikoa denez, partidua martitzenetan izango dira, 19:30ean. Aste honetan jokatutako amateur mailako bi partiduetan Antxiak eta Zabalak 22-17 irabazi zieten Izagirreri eta Txapartegiri, eta Domínguezek eta Mintegik ere aurrera egin zuten, Mendizabal-Larrarte bikotea mendean hartuta (22-17).

Martitzenean, hilaren 15ean honako partidua hauek jokatu dira, 19:30ean hasita: 22 urtetik azpikoetan Aspe-Errarte eta

Belloso-Elizalde bikoteak izango dira aurrez aurre eta amateur mailako neurketan Huizi-Gutiérrez eta Aranzeta-Argote bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Enrike Huizi usurbildarra eta Igor Gutiérrez bergararra txapelketa eskuratzeko bikote faboritoetako bat da. Ander Muguruza izango da herriko beste ordezkaria. Anderrek Ruben Zapirain azkoitiarraren laguntza izango du atzeko koadroetan. Final laurdeneko partidua apirilaren 28an jokatu dute, Domínguez-Mintegi bikotearen aurka hain zuzen.

AZAGIRRE, 22 URTETIK AZPIKOETAN
Bestalde, 22 urtetik azpikoetan, Eibarko taldean dabilen Iker Azagirre bergararra Esnaola bere saildarrarekin batera jokatu du. Aste Santuaren ostean, apirilaren 22an, Amantegi-Urriarte bikoteari egin beharko diete aurre. Txapelketako finalak esan bezala, maiatzaren 27an jokatu ko dira.



ARTXIBOA

Partaideek 9,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute domekan, Gorko kantinatik Trekutzeraino joan-etorria hain zuzen.

Gorko txakur leren lasterketaren X. edizioa jokatu da domekan

Bergara Mushing taldeak antolatutako proban 40 partaide inguru izango dira

EDU MENDIBIL

Txakur leren lasterketa jokatu da domekan Gorko, 11:00etan. 40 partaide inguru izango dira lehian eta ohikoa denez, Gorko kantinatik Trekutzerara bitarteko joan-etorria egin beharko dute.

Ibilbidea 9,5 kilometro ditu eta partaideek erabiltzen dituzten txakur kopuruaren arabera, hainbat maila bereiztuko dituzte. Beti-

ko moduan, txakur nordikoak izango dira nagusi lasterketan. Maila handiko musherak (leren gidariak) bilduko dira domekan, eta garaipena eskuratzeko faborito nagusiak Iker Ozkoidi eta Jesus Raigoso nafarrak eta Iban Uriondo arabarra izango dira. Suitzan jokaturako Alpen Trail proba ospetsuan laugarren postuan sailkatu zen Uriondo. Ozkoidi, berriz, aurtengo Pirenen hirugarrena izan da eta iaz Bergaran lortutako garaipena berriro esku-

ratu nahi izango du. Raigoso orain dela bi urte izan zen garaile Gorko. Axen Garitano bergararrak ere hartuko du parte eta Alaskatik ekarritako bi txakur erabiliko ditu.

ZAPATUAN, TXAKURRAK IKUSGAI

Bihar, zapatua, proban parte hartuko duten txakurak ikusgai egongo dira goizez Seminarioan eta, era berean, leren probekin zerikusia duen materiala salgai jarriko dute.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

16:00: Ganbara-A Ze Flaxa. La Quinta

17:00: La Quinta-Cipote Nucleico. Agirrebeña

18:00: Irubide-Agirrebeña. Cipote Nucleico

DOMEKAN, BARRUAN

10:30: Torrekua-Txipiron. K. Piperrak

11:30: Dedo Pafarru-K. Piperrak. Torrekua

16:00: Canalejas-Argandolas. Aterpe

17:00: Pirulotarrak-Aterpe. Antolaketa

OHARRA

Aste Santuan partidurik ez Antolaketa batzordeak jakin arazi duenez, apirilaren 19 eta 20ko aste bukeran ez da txapelketako partidurik jokatu Labegarietan. Hurrengoan (apirilaren 26 eta 27an) partidurik jokatu ezin duten taldeek antolaketari abisatu beharko diote.

Oñaderra elgoibartarrak irabazi zuen tenis txapelketa


E.M.

Ander Oñaderra elgoibartarra izan da tenis txapelketako irabazlea, zapatuan Jose Caballero arrasatearrari 2-6, 6-3 eta 6-4 irabazi ostean. Hirugarren posturako partiduan, Roberto Irizar oñatiarra Juan Luis Etxaniz bergararrari nagusitu zitzaion.

Txapelketan 16 lagun izan dira lehian. Debagoieneko zirkuituaren barruan, hurrengo txapelketa Oñatin jokatu da.

FRONTENIS TXAPELKETA MAIATZEAN

Frontenis txapelketa jokatu da Angiozarko pilotalekuan maiatzaren 10ean hasita. Izenematea, Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67).



ARTXIBOA

Oñaderrak (ezkerrean) hiru setetan irabazi zion finala Caballerori.

ESKUBALOA

Senior mailako taldeak Portugaleteri irabazi zion (33-26) eta Bilbon jokatu du domekan

Bergara KEko senior mutilen taldeak 33-26 irabazi zion Portugaleteri zapatuan, Labegarietan. Domekan, ligako azken partidua jokatu dute Bilbon, Escolapios taldearen aurka. Euskadiko Ligan jarraitzeko bergararrek beharrezkoa dute partidua irabaztea.

ESKIA


Aste Santuan Alpeetara eskiatzera joateko irteera antolatu du Pol-Polek

Pol-Pol Mendizale Taldeak Aste Santuan, apirilaren 18tik 26ra, Alpeetara eski irteera egingo du, Cerviniara. Izenematea Pol-Poleko bulegoan egin daiteke. Plaza mugatuak dira. Interesatuak 943 76 48 51 telefono zenbakian jaso ditzakete argibideak.

PILOTA

Udaberriko Txapelketako finalak jokatu dira gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Udaberriko Txapelketako finalak izango dira gaur Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita. Gazte mailako finalean Añorgako bikoteak izango dira aurrez aurre, eta lehen senior mailan Aretxabaleta eta Azkoitiko bikoteek neurtuko dituzte indarrak.



Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3
943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala
Matxiategi, 4
943 76 37 53




**KAZETARI
GAZTEAK
BISITARI**

Joan zen egubakoitzean Mariaren Lagundiako ikasle talde bat bisitari izan genuen BERRIGARAKO erredakzioan. Olaiz Jiménez de Aberasturi irakaslearekin batera 10 ikasle etorri ziren. DBHko 3. mailako ikasleek, aukerako ikasgaien artean, prentsa tailerra daukate eta komunikabideak aztertzen dihardute. Gauzak horrela BERRIGARA nola egiten den ikustera etorri ziren. Adi-adi jaso zituzten guk emandako azalpenak eta laster euren aldizkaria kaleratzeko asmoa daukatela esan ziguten. Dagoeneko *Beti kontu* aldizkariaren lehen alea kaleratu dute Mariaren Lagundiako ikasleek eta ekain alderako bigarren alea landuko dute. Ondoko argazkian ikasleak BERRIGARAN, Olaiz Jiménez de Aberasturi irakaslearekin.



**LUIS PEÑA
OMENDU DUTE**

Luis Peña udal langilea erretiratu egin berri da, eta haren lankideek afaria eskaini zioten aurreko egubakoitzean, apirilaren 4an, Erreki erretegiaren. Guztira, 38 lagun elkartu ziren eta giro ezin hobean afaldu zuten. Afalostean erlojua oparitu zioten Luis Peñari. Peñak urte mordo eman ditu udaleko lorazain lanetan. Aurreko astean 65 urte egin zituen eta erretiratzeko ordua heldu zaio. Lerro hauetatik ere erretiro onena opa diogu. Eutsi sasoiari!!!



**IPARRALDEKO
EPERRA IKASTOLARI
LAGUNTZA**

Xiberoa 2010 egitasmoari 12.000 euroko diru laguntza eman dio udalak. 6.000 euro Sohutako Eperra ikastolak jaso du. Sohuta Mauletik oso gertu dago eta hara eramane zuten udalaren dirulaguntza Mainer Larrañaga SAKO zinegotziak. 1997an auzolanean sortutako ikastola da Eperra eta Atharratzeko Abia ikastolarekin lankidetzan dihardu. Seaskarekin batera, adimen urritasuna dutenendako hezkuntza berezia eskaintzeko ahaleginetan dira.

Dixula
**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urate 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

**Plater
konbinatuak
Oilasko erreak
eramateko**

Biko
BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19


GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95


**Matxiategi
Elektragarintza
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.



Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

ADATS

Herri lagunak 4
BERGARA
943 76 49 51

- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
- Solarium bertikala



Boni Laskurain 2
BERGARA
943 76 56 05

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kerastase tratamend.
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

disdira

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Metxak eta moldeatuak

IDOLA

Espoloia 4
BERGARA
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

ileak

Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

San Pedro 23
BERGARA
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutexarekin

Jean Louis David

Ibargarai 43
BERGARA
943 76 22 48

- Teknika aurreratuenak
- Deskontu txartelak
- Solariumerako bonoa
- Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

KIZKUR

Bolu 51
BERGARA
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6
BERGARA
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

Ibargarai 42
BERGARA
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutexarekin

Pepelu

Zurradero 2
BERGARA
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

SANCHEZ

Fraiskozuri 4
BERGARA
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea

Imanolek 13 urte ditu, eta hogeita bi lanen artetik aukeratu dute bere lana

Imanol Cordovilla gaztetxoa, Pazkoetako kartelaren egile

MONIKA BELASTEGI

Imanol Cordovilla 13 urteko mutikoak irabazi du Kultura Sailak antolatutako Pazkoetako Kartel Lehiaketa. Cordovillaren lana 22 lanen artetik aukeratu dute, eta epaimahaiak lanaren kolore nahaske-ta, mezuaren argitasuna eta imajinazioa goraiatu ditu.

Erabakiarekin oso pozik dagoela esan du Imanolek. Mariaren Lagundian dihardu ikasten, DBH-ko bigarren mailan, eta Marrazketako irakasleak agindu zien Pazkoetako kartela egitea: "Eskolako lan bat zen hasieran", esan du Imanolek. Baina lana bukatu, eta lehiaketara aurkeztera animatu zen.

Egindako lana "nahi barik" atera zaiola adierazi du: "Herriaren plano egiteko asmoa nuen hasieran. Baina horretan hasi, eta konturatu barik pintura planoaren gainera erori zitzaidan. Hori horrela, ezustekoa aprobetxatu, margo gehiago bota eta kolore guztiak nahastu nituen. Egun batez lehortzen utzi nuen eta horren ondoren kola botatzea erabaki nuen; kolarekin bi dantzari formam eman nien". Guztia sikatu eta gero, serpentina zatiak eta hizkiak gehitu zizkion.

Gaztetxoa den arren, imajinaziorik falta ez zaiola argi utzi du Imanolek: "Kola erabiltzea momentuan otu zitzaidan". Lehiaketara aurkezten den lehen aldia



MONIKA BELASTEGI

Imanol Cordovillak pozik erakusten du saritutako lana.

da, baina margotzea txikitatik gustatzen zaiola esan du.

"Jasotako sariarekin -300 euro- bizikleta berria erosiko dut, eta lagunekin askarixoa egingo dut, ospatzeko". Hala eta guztiz ere, Imanoli zerak egiten dio ilusio handien: "Nire lana herriko jaiak iragartzeko erabil-

tzea, eta jakitea jende askok ikusiko duela".

PARTE-HARTZAILE UGARI

Hogeita bi lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta horien guztien artean aukeratu du epaimahaiak -Kultura batzordeko eta Bearteko ordezkariak- Imanolen lana.

Pazkoetako Kamisetarako I. Marrazki Lehiaketa abian

MONIKA BELASTEGI

Jardunek elkartearen kamisetak atera nahi ditu Pazkoetarako. Kamiseta euskal jai giroa irudikatu nahi dute, eta, horretarako, Pazkoetarako Kamisetarako I. Marrazki Lehiaketa antolatu dute.

Pazkoetarako kamiseta izango denez, lan irabazlea aukeratzeko, marrazkiak euskal jai giroa adieraztea da Jardungo kideek erabiliko duten irizpidea. Eta horixe da, hain justu, lehiaketaren baldintzetan marrazkiari eman dioten gaia: euskal jai giroa.

Debagoiengan bizi, lan edo ikasten duen edonork har dezake parte lehiaketan. Lanok zuri-beltzean eta DIN A3ko kartoi mehe zurian aurkeztu beharko dira, eta, era berean, inon argitaratu gabeak eta saritu gabeak izan beharko dute. Teknika, berriz, librea izango da.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan aurkeztu ahal ditu eta lanean ez da egilearen daturik eta firmarik jarriko. Egilearen datuak aparteko gutun azal baten sartu behar dira, eta gutun-azal hori eta lana berba beste gutun-azal handiago baten sartu eta honako helbidera bidali beharko da: Jardun elkartea; Errotalde jauregia (kultura etxea); 20570; Bergara.

APIRILAREN 29A AZKEN EGUNA

Marrazkiak aurkezteko azken eguna apirilaren 29a da, eta saritari dagokionez, Pazkoetan bilagunendako afaria eta saritutako kamiseta jasoko ditu irabazleak. Bestetik, marrazkiak Jardun elkartearen logotipoa txertatuta badauka baloratu egingo dela adierazi dute antolatzaileek.

Informazio zabalagoa Jardunen bulegoan, gaztejardun@topogunea.com helbidean edo zenbakiotan: 943 76 08 19/943 76 36 61.

KULTURAPILULAK

Bertso ezagunak gaur, egubakoitza, Pol-Polen, 22:30ean, 'Bertso musikatuak' emanaldian

Kultur Errotaren bitartez eta Bertso Eskolaren laguntzarekin antolatu du ikuskizuna Jardunek. Ikuskizunak bertsoak ditu oinarri eta musika, diapositibak, esketxak eta dantzak, berriz, lagunarrri. Ekitaldian, bertsolaritzaren ondaretik hautatutako bertso sorta esanguratsuenetakoak entzuteko aukera egongo da: Jon Sarasuak idatzi eta Oskorrik musikatutako *Euskaldun berriaren balada* eta Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean*, esaterako. Bertsoei ahotza Arantxa Cruzek eta Joseba Ramirezek jarriko diete. Pianoan Xabier Zabalak jardungo du eta gitarran, Joseba Ramirezek.

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

OSASUN ADARRA, A ETA D EREDUETAN

TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Lehen sorospenetarako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Zaharren egoitzetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g 20700 Urretxu
Telefona: 943 72 14 13 Faxe: 943 72 14 03
Posta elektronikoa: jmiparragirre@edunet.es

Oharra: ikasleen garraiorako dirulaguntza aurreikusten da.



ZAHARRENETXETIK

San Joxepe elkarteak urteko batzar orokorra egingo du apirilaren 30ean

EDU MENDIBIL

San Joxepe urteko batzar orokorra egingo du apirilaren 30ean (eguztana), erretiratuaren egoitzan, arratsaldean (ordua zehazteke dago oraindik). Besteak beste, aurtengorako asmoak eta Zuzendaritza berritzea aztertuko dituzte.

Zuzendaritza batzordeko kide izan nahi dutenei dei egin zien San Joxepe elkarteak, baina jasotako erantzunaren arabera, zaila izango da zuzendaritza berritzea. Tomasa Zabaleta presidentearekin batera honako hauek daude Zuzendaritzan gaur egun: Jose Miguel Ortigosa (presidenteordea), Mariasun Plazaola (idazkaria), Dora Manso (diruzaina) eta Nieves Gallastegi, Juan Iturralde, Jesus Ruiz de Azua, Natividad Albisua, Juan Kruz Azkarate eta Maria Luisa Basterra (batzordekideak). Hala, ziurrenik, goian aipatutakoek beste urtebete emango dute karguan.

San Joxepe 1.646 bazkide ditu gaur egun. Iaz 98 lagun egin ziren bazkide, horietako asko 65 urteko beherako aurrez erretiratuak. Zabaleta presidenteari zera azpimarratu du: "Elkartea bizi-bizirik dago eta gure helburua da 2.000 bazkide edukitzera heltzea". San Joxepeko bazkideen urteko kuota 8,40 eurokoa da.

Aurtengo asmoei dagokienez, elkarteak Gipuzkoako Nagusien Kontseiluak deitutako 2003ko Solidarioak izeneko lehiaketan hartuko du parte. Lehiaketa horrek Gipuzkoako zaharren egoitzen eguneratzea du helburu, gaurko gizartearen beharretara egokitzeko. Besteak beste, gizartean zaharren parte-hartzea bultzatzea, diskriminazioa baztertzeko eta solidaritatea bultzatzeko urratsak ematea, eta XXI. mendean zaharrek izan dezaketen betebeharra zehaztea dira 2003ko Solidarioak lehiaketaren helburu nagusiak.

Era berean, Gipuzkoan dauden zaharren egoitzak berritzea lortu nahi dute lehiaketarekin. San Joxepeko Zuzendaritzak etengabeko hobekuntza lortzeko urratsak ematen dihardu azken urteotan, eta, hori dela eta, Solidarioak lehiaketan parte hartzea erabaki du.

UDARAKO PROIEKTUA IDATZITA

San Joxepe elkarteak maiatzean hasiko da proiektua lantzen, eta uztailearen 31rako elkartearen bir-

moldaketaren gaineko proiektua idatzita izan beharko du. Uda ostean proiektua praktikara eramaten hasiko dira San Joxepe

elkartekoak. Lehiaketako irabazlea Gabonetan jakingo dugu. Lehen saria irabazten duen elkarteak 15.000 euro eta 10 lagun-

dako Europara bidaiak eskuratu-ko ditu. Lau finalista izendatuko dituzte eta bakoitzak 3.000 euro eta plaka oroigarria jasoko ditu.



Zure bidalketa zerbitzua Europa osora iristen da.



Jakin, badakizu, konfiantzaz utz ditzakezula gure esku Espainia eta Portugalerako bidalketak. Nahi al duzu zerbitzu hau bera Europa osorako?

Euro Expresekin dagoeneko baduzu: izan ere, paketeak garraiatzeko eta banatzeko Europako merkatu bakoitzeko liderrek osaturiko enpresa-sarea baita. Gisa horretan, zure bidalketa doan lekura doala ere, inguruak ongien ezagutzen dituztenek egingo dizute zerbitzua.

Guipuzcoana Euro Expressekook kalitate/prezio erlazio bikainaz garraiatzen ditugu paketeak eta paletak. Hortaz, zergatik ez duzu gure esku uzten Europara zuzenduko duzun hurrengo bidalketa?

www.guipuzcoana.com

Harremanetarako: 943 763 642 - San Juan Erreka 33, E-20570 Bergara - bergara@guipuzcoana.com

Ezagutza, bertakoa. Esperientzia, Europa-mailakoa.



Bergarako
erretiratuek 2003ko
Solidarioak
lehiaketan hartuko
dute parte



udaberria
uda



Otalora z/g, ARRASATE
943 79 82 68



Irala 5, BERGARA
943 76 27 16



Barrenkalea 35, BERGARA
943 76 29 46

Bonaventure • Pepe Jeans • Diesel • Levi's • Dockers • Zone • Daneva • Sweater House • Positive • Solido • James Dean • Replay • Bandolli

PACK Gaztea

Pack-a:
sei hilabeterako
lentillak eta
likidoak

95€

Eskaintza berezia

Pack bakoitzeko,
agenda
elektroniko
bat opari



Eskaintzaren balioa 2003/5/31 arte.

nobedadeak
eguzkitako
betaurrekoetan



graduatuak

59

eurotik aurrera




MULTIOPTICAS

Ibargarai 15 • Tel. 943 76 15 75 • BERGARA



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein elizatako arkupea eta frontoia dira argazkikoak?

PINTORE BERGARARRAK GAUR


Mikel Lazpiur

EDU MENDIBIL

Mikel Lazpiurri (Bergara, 1942) txikitatik dator kio marrazketarako eta pinturarako zaletasuna. Miguel eta Jesus Okinaren eskutik jaso zituen lehenbiziko eskolak, San Martin plazako azokan zegoen Arte eta Ofizio Eskolan. Ondoren, 1960ko hamarkadaren hasieran, Simon Arrietarekin eta Fernando Azkargortarekin batera ikasi zuen, Zabalotegin. Pintura bere zaletasun handienetako bat bilakatu da, nahiz eta ez dion nahi beste denbora eskaintzen. Hala ere, astero pintatzeko ahalegina egiten du eta Miguel Okinaren laguntzaz kanpora pintatzera joateko ohitura dauka: "paisaiak pintatzen ditugunondako haizea eta euria dira etsairik gogorrenak eta ateri dagoenean irteten gara. Naturatik pintatzea dut gustuko eta pintore impresionisten estiloak asko erakarri nau beti. Kolore garbiak atsegin ditut". Bere gustuko pintoreen artean Sisley, Degas, Velázquez edo Goya aipatzen ditu.

Bear tek Gabonetan egiten duten erakusketan parte hartzeko ohitura du eta etorkizunean pintatzeko denbora gehiago izatea nahi luke.

"Naturatik pintatzen gustatzen zait eta impresionisten estiloak erakarri nau beti"



E.M.

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat taldek hartuko dute parte Erramu-zapatuko Txorimalo Lehiaketan?

- A/ 32.
- B/ 23.
- C/ 19.

2.

Zein izan da aurtengo Pazkoetako Kartel Lehiaketako irabazlea?

- A/ Aloña Altuna.
- B/ Imanol Cordovilla.
- C/ Dani Laskurain.

3.

Zeinek irabazi zuen iaz Goriako txakur leren lasterketa?

- A/ Iker Ozkoidik.
- B/ Jesus Raigosok.
- C/ Axen Garitanok.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

UNAI ARIETALEANIZBEASKOArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Unai! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **Ezkerrekoa Justo Garate plazan eta eskumakoa Barrenkalen.** / Galde debalde: 1-A, 2-C, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Marbu Dorada gailetak

800 g-ko kaxa + Diver doan

1,42 €

236 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak



San Pedro, 9 - Teléfono: 761051

R.S.I. 209374-55
BERGARA

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**



BERGARA
Bittor Poza
Apirilaren 13an, 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Oscar Pérez
Apirilaren 11n, 6 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta familiakoak.



BERGARA
Jone Muniategiandikoetxea
Apirilaren 4an, 3 urte.
Zorionak! Etxekoak.




BERGARA
Iñigo Ugarte
Apirilaren 7an, 28 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



BERGARA
Idoia Regorigo
Apirilaren 11n, 8 urte.
Urte askotarako!
Ekaitz ata familiakoak.



BERGARA
Julio Narbaiza
Apirilaren 11n, 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ane Zangitu
Apirilaren 12an, 12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Amagoia Roman
Apirilaren 8an, 4 urte.
Urte askotarako!
Jokin, Alazne eta Asier.



BERGARA
Aitor Zurro
Apirilaren 13an, 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Maria Edroso
Apirilaren 10ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta anaia Mikel.



BERGARA
Beñat Landa
Apirilaren 11n, 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ander García
Apirilaren 11n, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Mikel.



BERGARA
Mariñe Jauregi
Apirilaren 18an, 6 urte.
Urte askotarako!
Amaia eta etxekoak.



BERGARA
Anne Zengotita
Apirilaren 15ean, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Joseba.



ELGETA
Ainara Aranzeta
Apirilaren 23an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Unai Salillas
13an, urtebete. Zorionak!
Aita, ama, osaba-izebak,
Jontxu eta Naia.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33

Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAn agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behea. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala) 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

ASTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77

GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

TRIPALDI Enrike Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

BASTERRETxea, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Irune Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43

CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

PODOLOGOAK

ALTUBE Edurne Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behea. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 11 / 154. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Igerilekuak egiteko hainbat oztopo dituzte

AINZANE IRIZAR

Duela hiru urteko aurrekontuetan igerilekuen proiekturako partida bat aurrez ikusi zuen Udalak. Orain, proiektua aurrera zihoala zirudienean, Gipuzkoako Diputazioak Udalari esan dio ezin daitekeela igerilekurik egin Sagasti auzoan.

Herriko gazteek eta gurasoek, batez ere, aspalditik eskatu izan diote Udalari herrian igerilekuak egitea. Oraingo legealdian, azkenean, gaia aztertzen hasi zen Udala. Proiektua egiten hasi aurretik, Antzuolaren tankerako hainbat herrirekin harremanetan jarri ziren Udaleko arduradunak, zelako igerilekuak zituzten ikusteko. Igerilekuak egiteko asmoa bideragarria zen ere ikusi nahi zuten Udaleko arduradunek beste herri batzuetako arduradunekin hitz eginda. Batekin eta bestearekin egon eta gaia ondo aztertu ondoren, hainbat irizpide zehaztu zituen Udalak.

ZMZ enpresari esleitu zizkionten aurre proiektua egiteko lanak. Gauzak horrela, bazirudien aurrera zihoala orain arte asmo hutsa zen proiektua. Baina, aurreko astean bertan, Diputazioaren jakinarazpen bat jaso zuen Udalak, Sagasti auzoan igerilekurik ezin dela egin esanaz. Badirudi arrazoiak dela inguru horretako lurzorua ez dela egonkorra; Udala, baina, ez dago konforme Diputazioaren jarrerarekin.



Udalaren asmoa da igerilekuak Sagasti auzoko zelaian egitea.

LURRA MUGITZEKO ARRISKUA

Udalaren asmoa da igerilekuak Sagasti auzoan egitea, eraiki berri dituzten etxebizitzaren aldameneko zelaian. Gune hori errepidearen ondoan dagoenez, Diputazioak Errepide Sailari baimena eskatu zion Udalak. Kasu horietan, Diputazioak zehazten du errepidetik zenbat distantziara egin behar diren lanok. Gune horretan, gainera, lurra mugitzeko arriskua duenez, Udalak espero zuen hainbat neurri tekniko har-

tzeko aginduko ziola Diputazioak. Baina ez bata eta ez bestea. Harrituta geratu dira Udaleko arduradunak jasotako erantzunarekin. Izan ere, Diputazioak Udalari esan dion gauza bakarria izan da hor ez dagoela igerilekurik egiterik. Arau subsidiarioetan ere jaso zuten gune horretan igerilekuak egitea eta Diputazioak ez zuen orduan alegaziorik aurkeztu. Alkateak adierazi digu proiektu hori aurrera eramateko lanean jarraituko dutela.

KIROLA

Finalerako sailkatu dira gimnastak

AINZANE IRIZAR

Aurreko asteburuan Gipuzkoako eskolarteko txapelketako finalurrekoak jokatu zituzten herriko gimnastek Azkoitian. Alebinak lehenengo postuan sailkatu ziren taldeka; Ikerne Rodríguezek eta Maialen Legorburuk, berriz, bergararren parte hartu zuten.

Denboraldi ona egiten dihardute gimnasia erritmikoko herriko neskek. Aurreko zapatuan ere, apirilaren 5ean, ondo ibili ziren antzuolarrak Azkoitian jokatu-tako eskolarteko txapelketako finalurrekoetan.

Alebin mailako boskoteak pilotarekin egin zuen saioa, taldeka. Lehenengo postuan sailkatu ziren eta, horrela, finalerako txartela lortu dute.

Benjaminei dagokionez, Ikerne Rodríguez antzuolarrak hartu zuen parte txapelketan. Bergarako taldearekin jarduten du Ikernek, bere adineko gimnasta bakarria delako herrian. Bergarako taldea ere lehenengo postuan sailkatu zen Azkoitiko finalurrekoan. Beraz, benjamin mailan ere izango dugu Antzuolako ordezkari bat finalean.

Kadete mailan, Maialen Legorburuk lan bikaina egin zuen txapelketan. Bakarkako lanean bigarren postuan sailkatu zen, eta finalerako txartela lortu zuen. Taldeka, berriz, Ikernek bezala, Bergarako taldearekin jarduten du Maialenek, eta lehenengo postuan geratu ziren. Hortaz, taldeka ere jokatu du finala Maialenek. Dena dela, oraindik zehazteke dago non eta noiz jokatuko dituzten finalak.

LABUR

Egunkariaren aldeko bonoak salgai jarri dituzte eta udaletxean eros daitezke

Euskaldunon Egunkariaren alde sortutako herri batzordeak ekimen berria jarri du martxan; *Egunkaria* diruz laguntzeko bonoak salgai jarri dituzte, 50 euroren truke, udaletxean. Bestalde, *Egunkari*ren harpidetun egiteko kanpaina ere aurrera doa. Dagoeneko 31 antzuolar harpidetu dira. Harpidetun egin nahi izanez gero, euskara zerbitzuan jaso ahal izango duzue informazio gehiago.

Kike Amonarriz soziologoak hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, udaletxean

Korrika Kulturalaren barruan, Kike Amonarrizen hitzaldia antolatuko dute Antzuolan, *Eske hau superguay da* izenburupean. Gaur, egubakoitza, izango da hitzaldi hori, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Gaur egun gazteek darabilten hizkeraren gainean jardungo du Amonarrizek.

Immersok antolatutako oporraldietarako izena emateko aukera apirilaren 25era arte

Urtero moduan, hirugarren adinekoendako hainbat aukera eskaintzen ditu Immersok: Penintsula barruan, Balearretan, Kanarrietan eta Portugalen. Kultur bidaiak eta naturarekin lotutako turismoa egiteko aukera eskaintzen dute. Informazio gehiago nahi izanez gero eta izena emateko, apirilaren 25a baino lehen udaletxeko gizar zerbitzura jo dezakezue.



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1. solairua, ANTZUOLA Tel. 943 76 60 89

LEKY-BERRI
MERENDEROA

Janariak
eta
edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

AGINTALDIARI BEGIRATUA

MIREIA UNAMUNO/ANTZUOLAKO ALKATEA

“Eztabaida politikoa alde batera laga eta udal kudeaketan oinarritu gara”

AINZANE IRIZAR

Antzuolak izan duen emakumezko lehendabiziko alkatea izan da Mireia, berak horri garrantzirik ematen ez dion arren. Esperientzia oso aberasgarria izan dela azaldu digu, eta orokorrean, agintaldiaren balorazio positiboa egin du.

Orokorrean, zela baloratuko zenuke legealdia?

Alde batetik, urte gogorrak izan dira, egoera politikoagatik. Baina, gure artean, zinegotzian artean, betidanik ohitura izan den moduan, ondo konpondu gara; izan ere, ez dugu politika egin, udal kudeaketan oinarritu gara. Eztabaida politiko hutsa alde batera laga eta udal kudeaketan zentratzea lortu dugu. Dena dela, psikologikoki eta pertsonalki asko eragiten dizu egoera politikoak; kontuan hartu behar da alderdia bertan behera laga zutela, orain legez kanpo laga dutela...

Legealdi hasieran aurrez ikusten zenituzten proiektuak eta asmoak zela joan dira?


Asmo batzuk aurrera joan dira, beste batzuen kasuan, berriz, zailtasun handiak izan ditugu. Gertatzen dena da askotan eskumenean inguruko borroka bat egoten dela, hau da, dena ez dago Udalaren esku. Dena dela, orokorrean, nahiko ondo joan direla uste dut, sortu dizkiguten angustia eta arazo guztiek.

Lau urte hauetan egin dituzten zein gauza azpimarratuko zenituzke?

Horrelakoetan, lan handiak aipatzen dira, eta noski, badaukate euren garrantzia. Baina, badaude beste gauza txikiago batzuk, horrenbeste ikusten ez direnak, nire ustez, behintzat, garrantzia handia dutenak. Eta hor, igogailuen kanpaina aipatu nahi nuke. Ikusten genuen herriko auzo batzuk, 1970. hamarkadako boom urbanistikoan erakitakoak, husten zihozazela; izan ere, nagusitzen doan jende asko bizi da auzo horietan, eta irisgarritasun arazo gero eta handiagoak zituzten. Horren aurrean, kanpaina bat jarri genuen abian, igogailuak jartzen zituztenei diru laguntzak emateko. Oso emaitza onak lortu ditugu.

Zintzilik edo bukatzeke, berriz, zer geratu zaizue?

Igerilekuen proiektua, esaterako, hor daukagu; lehen esan dudana bezala, kasu horretan ere, eskumen borroka bat dago. Askok hitz egiten da udalen autonomiaz, baina, benetan, ez dago horrelakorik; beno, egon badago, baina muga askorekin. Zintzilik geratu zaizkigunak kudeatzen jarraitzen dugu, zailtasunekin, gure



“Igogailuen kanpaina azpimarratu nahi nuke; oso emaitza onak lortu ditugu”

gainetik beste erakunde batzuk daudelako, zeresana daukatenak.

Elkarlanean oinarritzen zaretela azaldu diguzu; dena dela, EAJk laga egin zuen Gobernu Batzordea.

Bai; nik esango nuke, momentu hartan, estrategia politiko bat izan zela. Egoera politiko orokorra horrela zegoen, eta joko politikoa izan zela uste dut. Baina, gero, gure eguneroko errealitatea ez da hori izan; nahiz eta Gobernu Batzordeko kide legala ez izan, elkarlanean funtzionatu dugu, erabakiak denon artean hartuz.

Nik uste dut, eta guztiz konbentziturata nago, gainera, horrelako herri txikietan, politikoki gure artean egon daitezkeen ezberdintasunak oso txikiak direla; kudeaketa mailan, denok daukagu detektatuta herriaren beharrik izaten.

Udaletan, politika egiteko edo politikara *jolasteko* badago foro

“Asko hitz egiten da Udalen autonomiaz, baina muga ugari ditu autonomia horrek”

bat, osoko bilkura; baina, nik defendatzen dudana da udaletxe barruko batzarretan egin behar dela lana eta politika alde batera laga. Bestela, eztabaida politikoa jausten gara eta kudeaketa lan guztia hutsaldu egiten da.

Berriro izango zinateke alkate?

Gauden egoera politikoan hori planteatzea zaila da. Dena dela, esperientzia pertsonal aberasgarria izan da niretako. Alde txarragoak ere badauzka: herri txikietan harremanak oso gertukoak dira, pertsonalak, eta horrek, askotan, desgaste handia suposatzen du. Gainera, bizi izan dugun egoeran horrelako kargu bat edukitzea apustu pertsonal bat da; psikologikoki, azkeneko urtea oso gogorra izan da.

Zer esango zenioke hurrengo alkate izango denari?

Pazientzia handia behar dela; bidean oztopo asko topatu arren, pazientziaz eta elkarlanean, denak gainditzen direla.

Beste udal taldeen iritzia

JOSE ANJEL ZABALO / EAJ

“Oposizio gogorrik ez egitea erabaki genuen hasieratik”

Iusio handiarekin hasi genuen legealdia, eskuarte proiektu ugari genituela: Olan etxearena, Gizarte Etxearena, Udalak lagundutako etxebizitzena... Gainera, hasieratik erabaki genuen elkarrekin lan egingo genuela, ez genuela oposizio gogorrik egingo. Dena dela, proiektu batzuekin arazoak izan ditugu, Olan inguruko urbanizazioarekin, esaterako: kudeaketa arazoak izan genituen, eta eztabaida batzuk izan genituen Udalean.

Aipatzekoa da, bestalde, industrialdearen proiektua; arazoak arazo, aurrera jarrai-



tzen dugu lanean. Bestetik, gizarte kontuetan ere apustua egin dugun arren, zera esan nahiko nuke: gainerako erakundeetatik laguntza behar duela Udalak.

JOSE IGNACIO MADARIAGA / EA

“Etxebizitzaren politika bereziki bultzatu dugu Udalean”

Oso esperientzia ona izan da legealdia, elkarlanean oinarritutakoa eta liskar handirik gabea.

Batetik, etxebizitzaren politikari garrantzia handia eman diogu, nahiz eta ekimen publiko nahi genuen adina etxebizitza ezin izan dugun egin.

Bestetik, errekarren auziari behin behineko irtenbidea eman zaio, nahiz eta gu ez gauden guztiz konforme. Dena dela, argi laga nahi nuke, zerbait lortu baldin bada, Deskarga Erreka Elkarteari esker izan dela.

Bestalde, ez nuke aipatu barik laga nahi aurrekontuekin



izan dugun arazoa. Gure ustez, ezin da herritarren diruarekin horrela ibili; gertatutakoa Udalaren ardura izan zen, eta, beraz, nire ardura parte onartzen dut.

JUAN BENÍTEZ / PSE-EE

“Elkartasuna eta elkar bizitza hartu behar ditugu oinarri”

Azkeneko urteotan asko eraiki da herrian. Lehen kale bakarra zegoen herrian; orain, berriz, kale berri bat estreinatu dugu, etxebizitza ugari eraiki dira..., eta ondo eraiki da, gainera. Hori positiboa da herriarendako.

Baina, eraikin garrantzitsuena, hau da, elkarbizitzarena eta giza baloreena, goitik behera etortzen zaigun egunean, material tona mordoan izango dugu, eta material hori ez da, gainera, birziklagarria izango.

Nire ustez, alde horretatik, gaizki eraikitzen dihardugu herrian; harkaitzaren gainean



eraiki behar dugu, oinarri unibertsalen gainean, denondako balio duten oinarrien gainean: elkartasuna eta elkar bizitza oinarri hartuta, eta ez oinarri nazionalistengan.

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko apirilaren 11 / 138. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33. 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Eguazten arratsaldetan bakarrik zabalduko dute KZ gunea

IRATI AGIRREAZALDEGI

KZ gunek iazko azaroan ireki zituen ateak eta martxora arteko eguneroko jardunaren ostean, orain asteen behin baino ezin dituzte ordenagailuak erabili elgetarrek. Nabigatzera joan nahi dutenek, beraz, asteazken arratsaldetan izango dute horretarako aukera.

Iazko azaroaren 11n, Elgetako KZgunea martxan jarri zuten eta ordutik aurtengo martxoren erdira arte interneteko ikastaroak eman dituzte bertan. Nabigatzeko oinarrizko gaiak erakutsi dizkiete elgetarrei 20 eta 10 orduko ikastaroetan. Kurtso hauetan 50 lagun aritu dira, eta guztira, 70 herritarrek eman dute izena KZ gunean ordenagailuak erabili ahal izateko.

Elgetarrek interneten nabigatzeko ikasi dute eta orain eskola gehiago jaso nahi dutenek KZ gunean eman beharko dute izena. Taldea osatuko balitz bakarrik joango litzateke irakaslea klaseak ematera.

Nabigatzeko aukerak ere murriztu egin dizkiete herritarrei. Hemendik aurrera asteen



OXEL EROSTARBE

Elgetako KZ guneko ikastaroetan 50 lagun aritu dira interneten erabilera ikasten.

behin baino ez da zabalik egongo KZ gunea: asteazkenetan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea bertan izango da bertaratutako en zalantzak argitzeko.

AUKERAK AZTERTZEN

Udaletik esan digutenez, gaitzertzeko egunetan KZ gunea zabalik izateko aukerak aztertzen ari dira.

Horretarako, arduradun bat jarri beharko lukete edo bestela ordenagailu guztiak liburutegi ondoko gela batera aldatu. Baina oraindik ez dute ezer erabaki.



Aralar Udal hauteskundeetan

Elgetako Aralar datozen udal hauteskundeetan herrigintza egiteko konpromisoarekin eta alkatetza lortzeko asmoarekin aurkeztuko da. Horretarako, programa osatzen dihardute eta eguazteneko, gaueko 21:15ean, liburutegian elkartzen dira. Elgetarrei jakinarazi nahi diete Aralarren ateak zabalik daudela. Hautagai ezkerretze eta abertzaleen zerrenda datoren apirilaren 29an aurkeztuko dute eta Aralarreko kideez gain, independenteak ere izango dira bertan./I.A.

LABUR

Berraondokuan 50 autorentzako aparkalekuak

Martxoaren 31n hasi eta datoren aste bukaerarako amaituta izango dira Berraondokuan egin duten aparkalekuak egokitzeko lanak.

Lehen ere zenbait auto gidarik lagatzen zuen ibilgailua Berraondokuan lur zatian, baina orain, egokitu eta aglomeratua bota ostean, 50 automobilentzako lekua izango da.

1.000 m²-tik gorako lantutik murrak egingo dituzte eta margotu ostean, baita inguruan lau farola jarri ere.

Elgeta elkarlanian eta AUBren aldeko sinadura bilketa

Elgeta auzolanian plataforma eta AUB alderdia datozen hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko herritarren sinadurak biltzen ari dira.

Elgetarrek udaletxeko idazkaritzan sinatu dezaketen agiria astegunetan goizeko 8:00etatik 13:00etara edo arratsaldeko 14:00etatik 18:00etara. Bestalde, kanpoan lan egin edo ikasten duten elgetarrei gogorarazi nahi zaie larunbatean ere izango dutela sinatzeko aukera udaletxean bertan 11:00etatik 13:00etara.

Udal kontribuzioen behin behineko errolda ikusgai

Elgetako Udaletik jakinarazi dute landa lurren eta hiru lurren jabeek udaletxean dutela ikusgai behin-behineko errolda. Honen arabera, hainbat zergak zehaztuko dira.

Herritarrek apirilaren 25era arteko epea izango dute errolda ikusteko eta ondoren behar izanez gero, erreklamazioak aurkezteko.

Ondoren, ekainaren amaiera aldera egingo dira kontribuzioen guztien kobratuak.

AGINTALDIARI BEGIRATUA

PATXI BASAURI/ALKATEA

“Industria gunea eta auditorioa izan dira legealdiko lan nagusiak”

IRATI AGIRREAZALDEGI

27 urtez Elgetako alkatetzan. Berriz alkate gai aurkeztu den honetan azken legealdiaren balorazioa eskatu diogu Patxi Basauriri. Gustuko du alkate izatea eta bere postutik herriaren perspektiba zabala izatea lortu du.

Legealdia amaitzean da. Egiguzu lau urteotako balorazio orokorra.

Gerora begirako legealdia izan da. Hau da, hurrengo urteetan etorriko den Elgetarako proiektua prestatzen hasi gara: arau subsidiarioen aldaketa, auditorioa, eguneko zentroa...

“Elkarturik, irabazi egingo dugu”, izan zen 99ko hauteskundeetako zuen lema. Zer irabazi du Elgetak lau urteotan?

Industria arloan asko irabazi du. Industria gunea bukatu da eta aurrera begira sendotu egin nahi dugu. Lantegiak itxi eta jende asko lanik gabe geratu zen eta hemen aurkitu zuen irtenbidea, Elgetako gazte askok ere bertan dihardu lanean. Azpimarratu beharreko beste gauza bat auditorioa da. Apustu gogorra izan arren seguru gaude gerora oihartzun handia izango duela.

Ezer galdu al du?

Ez da dena erabat beltza edo zuria eta industriak eraikitzeke berdeguneak erabili dira. Hala ere, ez dira nekazaritzako lurak.

Jarritako asmoen artetik egiteko geratu denik ba al da?


Saihesbidea oraindik ere egiteke dago. Gutxienez Arrasatetik Elorriara artekoa zatia egin nahi genuke hurrengo legealdian. Izan ere, orain ibilgailuak Salbador kalean barrena pasatzen dira eta saihesbidea egindakoan gure asmoa herri erdigunea oinezkoentzako jartzea da.

Legealdiaren hasieran gobernu batzordea EHrekin osatu zuten, gero bakarrik geratu zineten. Izan al da ezberdintasunik bi etapen artean?

Udalaren funtzionamendua ikusita, aldaketa nabarmenik ez dela egon esan nezake. Izan ere, gai gehienak informazio batzordeetatik pasatzen dira eta ondoren, gobernu batzordera. Hemen gehienak onartzen dira. Beraz, ez dago ezberdintasunik alderdi bakarra egon edo bi egon. Etealdien arrazoia zera izan zen: Batzordean elkarrekin egon eta aurrekontuak prestatu genituen ez zituzten onartu eta ez zuten arrazoirik eman gainera.

Batzorde informatiboek zein paper jokatzen dute?

Batzordeen berri ematen dugu herrian eta bada jendea batzordera azaldu eta beraien hitza eta iritzia ematen duena. Azken



I.A.

“Alde gizatiarretik Arrate Elkororen hilketa izan da legealdiko unerik txarreña”

erabakiak, ordea, gobernu batzordean edo plenoan hartzen dira.

Zein izan dira legealdiko unerik onena eta txarreña?

Legealdiaren amaiera. Oinarri sakon batzuk jarri ditugu geroa begira Udalak zer egin behar duen esanez. Apustu ekonomiko garrantzitsua egin genuen eta datorren legealdirako erroka nagusiak zerbitzuen arlokoak izango dira. Une txarreña politikoki, gobernu batzordearen haurtuta. Alde gizatiarretik, berriz, Arrate Elkororen hilketak asko mindu gintuen.

Etxe berriak ere eraiki dira legealdi honetan, ezta?

Bai, eta gerora begira ere gehiago eraikitzeke asmoa dugu. Orain ez dago etxeak egiteko aukerarik, baina arau subsidiarioak aldatzean hiru etxe mota egin ahal izango ditugu: arruntak, adosatuak eta babes ofizialekoak. Herriko gazteei lagundu nahi diegu eta baita kanpotik lanera etorri eta bertan geratu nahi dutenei aukera eman

“Herriak langabeziari irtenbidea ematea eskatzen zuen eta hori lortu dugu”

ere. Helburua biztanle kopurua igotzea da.

Zein alorretan sumatu duzue behar gehien?

Elgetako herriak langabeziari irtenbidea ematea eskatzen zuen eta hori lortu dugu. Horretaz gain, jendeak bizi kalitatea gehitzea nahi du eta horretara bideratu nahi ditugu gure ahaleginak. Zerbitzuak indartu eta herria gizatiarrago egin nahi genuke: Saihesbidea eraiki, herrian geratzen diren industriak kanpora eramanez, herria oinezkoentzako jarri... herriari giro goxoagoa emanez. Orain kanpotik jende asko etortzen da eguna pasatzera lasaitasun bila eta gero ere modu bertsuan jarraitzea da gure asmoa.

Hauteskundeetarako zein aurreikuspen du zerranda buru zaituen koalizioak?

Hauteskundeak gehiengo absolutuz irabazi nahi ditugu eta hala izango dela uste dugu gainera.

Beste udal taldearen iritzia

BITTOR GALLASTEGI/ SOZIALISTA ABERTZALEAK

“Udal batzordeek erabaki ahalmen gutxi dute”

Balorazioa egiteko orduan, bi atal bereizi nahi izan ditu Bittor Gallastegi Sozialista Abertzaleak alderdiko zinegotziak: batetik, beraiek zuzentzen dituzten batzordeak eta bestetik Udala bere osotasunean. “Kultura, euskara eta jaien batzordea eta baserritarrena gure esku egon dira eta hasieratik oso funtzionamendu egokia izan dute. Jende askok hartu du parte, batez ere jaietakoan”, esan digu Bittorrek.

Udalaren funtzionamenduan ere hitz egin du Bittor Gallastegik: “hasieran batzordeetan jende askok parte hartzen bazuen ere, informatibo hutsak direnez, hartutako erabaki batzuk ez dira aurrera ateratzen, azken hitza alkateak edo gobernu batzordeak baitute. Gure alderdia ere legealdiaren erdi aldean gobernu batzordetik kanpo geratu zen eta ondorioz, gure zuzendutako batzordeetan gauzak erabaki arren, beti ez dira betetzen”. Legealdiari buruz zerbait azpimarratzekotan jendearen partehartzea aipatu du Bittorrek: “Jaiak benetan gustuko dituztenek antolatuak izan dira, baita kultur arloko ekitaldiak ere. Antzerkiaren inguruan, esate-



“Herriar askok hartu du parte batzordeetan, batez ere jaiak antolatzeke”

rako, dinamika polita sortu da. Zinegotzi garen aldetik horretarako bideak jartzea izan da gure lana”. Legealdiko alderdi negatiboa, berriz, “batzordeen erabaki ahalmen urria” dela esan du. “UEMAN ez sartzea ere nahiko alderdi ezkorretik ikusten dugu, horrek herriari euskararen eta kulturaren arloan bideak irekiko bailizkioke”.

ANALISIA

Aldaketara bidean

Koalizioa (EAJ/EA) eta Sozialista Abertzaleak. Honela dago osatuta Udala. Legealdi hasieran kiro-lari eta kulturari eman zioten garrantzia, aurrekontuan biak azpimarratuz. Nahirik handiena auditorioa martxan jartzea da. Herriak behar du ekintza kulturalerako gunea. Goibeko Elkartea kudeatzeko prest dago.

Aretotik kalera aterata autoek lastertasuna gutxitzeko irtenbidea eskatu dute herritarrek eta udalak semaforoak jartzeko asmoa du. Legealdia amaitu aurretik zaila da plana gauzatzea.

Kaletik berriz barrura, etxeetara, etxebizitza ugari eraiki da herrian eta Torrealdean etxeak egiteko asmoa ere ezin ahaztu, oraindik lanak hasteke badaude ere. Etxeak ez ezik inguruak ere txukundu dituzte, bankuak, Berraondokuan aparkalekua...

Herriko txikienek etxetik eskolarako bidea egiten dute egunero eta azkenean Guraso Elkarteari kasu eginez eskolara jangela jartzea lortu dute. Ikasleak eta langileak, industrialdeak handitzen jarraitzen du eta hori ona da herriko ekonomiarentzat. Hezkuntzaz eta lanaz gain, komunikazioak ere badu garrantzia. Sakelako telefonoentzako antena Uruburun ez jartzea lortu dute herritarrek. Bestalde, Udalak, Goitb herrian ikusteko dirua jarri du.

Legealdi berriaren atarian herriaren etorkizuna zehazteko arau subsidiarioak aldatzean daude. Orain hauteskundeen zain geratu beharko dugu /I.A.

ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Aste Santua
Urbiako
txaboletan

Jende asko hasia dago jadanik Aste Santurako planak egiten. Oporretan kanpora joango dira gehienak, baina izango da inguruak ezagutzen geratuko denik ere. Elgetako gazte koadrila hau Aste Santuan Urbiara joan ohi zen oporraldia aprobetxatuz. Orain dela 30 urte inguru ateratako erretratuan Aizkorri azpiko txabola baten atarian agertzen dira Elgeta eta Eibarko hainbat gazte, bertan egiten baitzuten lo. Lagun giroan, egun batzuk igarotzeko ez da lekurik txarrena. Mendi ibilaldiak egiten zituzten eta urteren baten elurra ere lagun izan zutela kontatu digute. Urbian eibartarrekin egiten zuten topo eta argazkian beraietako batzuk ere agertzen dira. Hona hemen erretratuan agertzen direnak:

Makurtuta, ezkerretik: Pello Ojanguren eta eibartarra.

Bigarren ilaran, ezkerretik esku-mara: Mari Koro Retolaza, Jesusa Izagirre, Mari Karmen Aranzabal, Ana Mari Larreategi, Izaskun Olabarria, Eloi Irazabal eta Maite Elkoro.



Hirugarren ilaran ezkerretik hasita: eibartarra, Fernando Retolaza, Maria Eugenia Irazabal eta Eburne Alberdi.

Argazkiaren eskuin aldean tente: M. Angeles Olabarria eta eibartarra.

Argazkia: M. Eugenia Irazabal

ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA

San Roke
kale bukaera


San Roke kaleak eta Artekalek bat egiten duten lekuaren argazkia ekarri dizuegu oraingoan.

Aparkaleku txiki bat zegoen bidegurutze honetan eta orain etxebizitza bloke berri bat eraikitzea gain, errepidea ere egokitu dute.

Ezkerreko erretratuan bihurgunea ikusten bada ere, kurba kendu zuzenetik bidean zuzen sartzen dira Eibartik datozen auto gidariak.



≈ 1995 Argazkiaren eskuin aldean bihurgunea ikus dezakegu eta ezkerrean, San Rokek eta Artekalek bat egiten duten guneko aparkalekua.



2003 Etxebizitza blokea eraiki berri dute bi kaleen erdian eta orain ingurua egokitzen ari dira. Azterak, errepidea...



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10

↑
APIRILAREN

EUSKAL HERRIAK

ZURE SINADURA BEHAR DU!

ETIK *aurrera*



GIPUZKOAKO UDAL IDAZKARITZA GUZTIAN eta NOTARITZETAN

ZATOZ SINATZERA!

BERGARA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Roberto Rafael Oliver Puertolas (Notaritza)

Ibargarai 20 • BERGARA

Ordutegia: 10:00-13:00 eta 16:00-17:30

943 76 10 73

FAXISMOARI ESAN OZENKI

SINADUREN BILKETARI BURUZKO ARGIPENETARAKO GUNEAK
948 21 36 01  www.aubilgunea.org

DIRU LAGUNTZA
BANCO DE VASCONIA 0095 4638 17 0600206470

50.000 BAIETZ!


Corsa **Edition** berria
Ekipamendu eta aurrezki eksklusiboak



Apirilean, Corsa deskontuarekin

Gehienez

2.400€



Opel EDITION gamak oso ekipamendu eksklusiboa eta 2.400€ eurorainoko deskontua eskaintzen dizkizu Agila, Corsa, Astra eta Zafira autoetan.

Zatoz lehenbailehen zure Opel kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Sustopen hau balizkoa da Penintsulan eta Balear Uharteetan, stock-ean dauden autoendako, apirilaren 30ero arte. Deskontua, Corsa Diesel gamak kalkulatu.

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA

www.giauto.es